# BERSOAK ETA PINTURA.

## (AMALAUDUNA)

(NERE ADISKIDE ON FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN JAUNARI)

Franzisko, zure liraren soñu eztiya,
Ramon-en biotzean gelditzen da preso;
Apolok musutzen zaitun seme argiya,
Zabaitzen zaitu graziz apainduba oso:
Nuk irudi ederrak maiz esna arazo
Izan dituzu, baña dezaten graziya,
Sinist bezate nola nik denak zuk gozo,
Kantatutzen dezula berso egokiya.
Orain esku diozu eman pinturari,
Lumari lengo joan biderik ichi gabe
Oonra prochubakin ken zaiozun lanari:
Pauso modu oek ematia da obe,
Egin zaitezen zere dezun doaiz sarri
Zenbait sari berri estimaturen jabe.

RAMON ARTOLA.